

AOT / TAG 2016

IRIZPENA

2016ko urtarrilaren 11ko ebazpenaren bidez, kontratazio-espeditentea, klausula administratibo berezien agiria eta baldintza teknikoen agiria onartzen dira Bizkaiko Foru Aldundiaren eraikin publiko batean bi igogailu-blokeren hornidura eta instalazioa egiteko kontratua lizitatzeko.

Prozedura: publizitatetik gabeko negoziatua, eskusibotasuna dela-eta (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuaren 170.a artikulua). Espeditentean, kontratazio-organoak arrazoitzen du eskusibotasun hori; izan ere, esaten du Ascensores Laeligidilla SA enpresa dela berak patentatutako teknika baten jabe intelektual bakarra (eta teknologia horren banatzaile bakarra Espainian). Teknologia horri esker, kontratua gauzatzen ari den bitartean igogailuak operatibo egongo dira eta, beraz, eraikin publikoaren funtzionamendua bermatuko da. Hori beharrezkoa da, sistema hori erabili ezean arazo larriak sortuko bailirateke eraikin horretako jardueran. Hala ere, eskusibotasunaren baldintza hori ez dago agiri bidez egiaztatuta kontratazio-espeditentean.

Kontratuaren balio zenbatetsia 900.000,00 euro da.

2016ko apirilaren 4ko ebazpenaren bidez, Ascensores Laelegidilla SA enpresari adjudikatu zitzaion hornidura-kontratua.

2016ko apirilaren 8an, kontratua adjudikatzeko jakinarazpena bidali zitzaion Ascensores Laelegidilla SA enpresari. Eta egun horretan bertan, 2016ko apirilaren 8an, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilean argitaratu zen kontratua adjudikatzeko ebazpena.

2016ko apirilaren 18an, kontratua formalizatu egin zen, eta, 2016ko apirilaren 19an, kontratua gauzatzen hasi zen.

Elevadores Elcielo SA enpresak ez zuen parte hartu hornidura-kontratu hau adjudikatzeko prozeduran, baina, 2016ko apirilaren 8an, Bizkaiko Foru Aldundiaren kontratatzailearen profilaren bidez jakin zuen Ascensores Laelegidilla SA enpresari adjudikatu zitzaiola. Berehala, behar zen dokumentazioa bildu eta, 2016ko apirilaren 20an, Elevadores Elcielo SAK kontratazio arloko errekurtsio berezia aurkeztu zuen kontratuaren adjudikazioaren aurka; kontratazio-organoaren erregistroan aurkeztu zuen errekurtsioa. Aurretik ere kontratazio-organo horri jakinarazi zion kontratazio arloko errekurtsio berezia aurkeztuko zuela.

Elevadores Elcielo SAK, besteak beste, alegatzen du patentatutako teknika dela-eta erabilitako eskusibotasuna ez dela arrazoia eskaintzak aurkeztean Ascensores Laelegidilla SA enpresa bakarrik gonbidatzeko eta sektoreko gainerako enpresei lizitazio publiko batean parte hartzeko aukera ez emateko. Horrez gainera, Elevadores Elcielo SAK adierazten du bere enpresak baduela teknika bat era berean aukera ematen duena kontratua gauzaten ari den bitartean eraikin publikoaren funtzionamendua bermatzeko eta igogailuak operatibo mantentzeko, bai eta eraikineko komunikazio bertikala mantentzeko ere. Eta gaineratzen du sektoreko edozein enpresa gai dela kontratua era horretan gauzatzeko.

Eskatzen du, era berean, prozeduraren izapidetzea bertan behera uzteko.

Eman irizpen bat, alderdi hauek aztertuta:

Errekurtsoaren onargarritasuna (bai ala ez): aurkezteko epea, errekurtsoaren egokitasuna...

Elevadores Elcielo SA enpresaren legitimazioa.

Errekurtsoa jartzearen ondorioak

Kontratua adjudikatzeko prozeduran gertatutako ustezko arau-hausteak. Auziaren edukia: baiespena/ezespena.

Errekurtsoa ebazteak eragin ditzakeen ondorioak.

Elevadores Elcielo SAK jarritako errekurtsoaren ebazpenaren kontrako errekurtsoa.

DICTAMEN

Mediante Resolución de fecha 11 de enero de 2016 se aprueba el expediente de contratación y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas para la licitación del contrato de suministro e instalación de dos bloques de ascensores para un edificio público de la Diputación Foral de Bizkaia.

Procedimiento: negociado sin publicidad por exclusividad (artículo 170.d. del texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público). El órgano de contratación argumenta la exclusividad en el expediente diciendo que la empresa Ascensores Laeligidilla, S.A. es la única propietaria intelectual de una técnica patentada por ella (única distribuidora en España de esta tecnología) que permite mantener en funcionamiento el edificio público con los ascensores operativos durante la ejecución del contrato, lo que es necesario, ya que de otro modo, si no se utiliza este sistema, se originarían graves perjuicios en la actividad de dicho edificio. Sin embargo, esta circunstancia de exclusividad no consta acreditada documentalmente en el expediente de contratación.

Valor estimado del contrato 900.000,00 euros.

Mediante Resolución del día 4 de abril de 2016 se adjudica el contrato de suministro a la empresa Ascensores Laelegidilla, S.A.

Con fecha 8 de abril de 2016 se remite la notificación de la adjudicación del contrato a Ascensores Laelegidilla, S.A. y en esa misma fecha de 8 de abril de 2016 la Resolución de la adjudicación del contrato se publica en el perfil de contratante de la Diputación Foral de Bizkaia.

El día 18 de abril de 2016, se formaliza el contrato y el día 19 de abril de 2016 se inicia la ejecución del contrato.

El día 8 de abril de 2016 Elevadores Elcielo, S.A., empresa que no ha participado en el procedimiento de adjudicación del contrato de suministro de referencia, a través del perfil de contratante de la Diputación Foral de Bizkaia, tiene conocimiento de que dicho contrato ha sido adjudicado a la empresa Ascensores Laelegidilla, S.A. Inmediatamente reúne la documentación oportuna y el día 20 de abril de 2016 Elevadores Elcielo, S.A interpone un escrito de recurso especial en materia de contratación contra la adjudicación del contrato, que presenta en el registro del órgano de contratación. Con anterioridad anunció al mismo órgano de contratación la interposición de dicho recurso especial en materia de contratación.

Elevadores Elcielo, S.A. alega, entre otros motivos, que la razón de exclusividad por motivo de la técnica patentada no es razón para que únicamente se haya invitado a la empresa Ascensores Laelegidilla, S.A. a presentar oferta, privando al resto de empresas del sector de participar en una licitación pública. Además, Elevadores Elcielo, S.A. indica en su escrito que su empresa dispone de una técnica que consigue de igual modo mantener en funcionamiento el edificio público con los ascensores operativos durante la ejecución del contrato y mantiene la comunicación vertical en el edificio. Añade que este modo de ejecución lo puede hacer cualquier empresa del sector.

Asimismo, solicita la suspensión de la tramitación del procedimiento.

Emitir dictamen que examine, entre otros, los siguientes asuntos:

Admisión o no del recurso: plazo de interposición, pertinencia del recurso interpuesto...

Legitimación de Elevadores Elcielo, S.A.

Efectos de la interposición del recurso

Posibles infracciones en el procedimiento de adjudicación del contrato. Fondo del asunto: posible estimación/desestimación

Efectos que se puedan derivar de la resolución del recurso

Recurso contra la resolución del recurso interpuesto por Elevadores Elcielo, S.A.